

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Unai Urroz Guelbenzu

*Doneztebe,
Nafarroa
(1993)*

Aurkibidea



Biografia



1993ko maiatzaren 26an jaioa, Donezteben bizi izan da beti. Aita Oitzekoa du eta sunbildarra ama. Anaia zaharragoa du. Elkarrizketa egin genionean ikasketak egiten ari zen Irungo Bidasoa Institutoan. “Estu & Larri” eta “Oharkabe” musika taldeetako bateria-jotzailea. Izan ere, zazpi urte zituela hasi zen Doneztebeko musika eskolan ikasketak egiten. Musika kontuak izan genituen mintzagai, batez ere, baina baita hizkuntza kontuak ere, haiekiko kezka berezia agertu baitzuen Unai.

Zintak

DOE-001

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2014-12-30
- **Iraupena:** 112 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Musika zaletasun

- **Erref:** DOE-001/003
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:02:24. **Bukatu:** 00:04:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bi urte inguru zituela, txistua jotzen ari zen lehengusuaren erritmora danborila jotzen hasi eta ezustekoa eman zien familiako denei. Momentu hura grabatuta omen dute. Familia handia dira aitaren partetik, eta musikari asko da tartean.

2. Doneztebeko musika eskolan ikasia

- **Erref:** DOE-001/005
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:06:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zazpi urte inguru zituela hasi zen Unai musika ikasten, Doneztebeko musika eskolan, eta 10 urte egin zituen bertan.

3. Igor Telletxea, musikari beratarra

- **Erref:** DOE-001/007
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:09:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Igor Telletxea musikaria da, beratarra, eta Unairen irakaslea izan zen zortzi urtez. Egun badute harremanik, oraindik ere.

4. Egunero bateria jotzen

- **Erref:** DOE-001/008
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:09:33. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Gaur egun Unairen musika eskola dira lokala, etxeko ganbara, musika entzutea eta besteen kontzertuetan adi egotea.

5. Kontzertuetan, "aurrin, jaleo guzin"

- **Erref:** DOE-001/009
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:13:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Besteen kontzertuetara joaten denean aurrean ibiltzea gustatzen zaio, eszenatokitik ahalik eta hurbilen, "aurrin, jaleo guzin", berak dioen moduan. Bateria-jotzaile onak erritmoa ongi eramaten jakin behar du.

6. Agorreta Musika Eskola

- **Erref:** DOE-001/011
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:13:21. **Bukatu:** 00:15:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Doneztebeko musika eskolak Agorreta du izena. Lehengo zine zaharraren eraikin berean dago.

7. Musika eskolako lehen emanaldia

- **Erref:** DOE-001/012
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:15:34. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Musika eskolako lehen emanaldia emateko aukera suertatu zenean, barizelarekin zegoen Unai.

8. Emanaldiak Doneztebeko elizan

- **Erref:** DOE-001/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:19:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Ikasturte amaieran eta Gabonak inguruan egiten dituzte kontzertuak musika eskolakoek. Elkarriketa garaian, herriko koralarekin egiten omen zituzten elizan.</p>

9. Donezteben musika giroa jaitsita

- **Erref:** DOE-001/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:19:38. **Bukatu:** 00:20:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Donezteben giroa apur bat jaitsita sumatzen du Unaik, musikari dagokionean, behintzat. Zentzu horretan, inbidia puntu batez begiratzen die lesakarrei.

10. Solfeoa ikastera bai, baina gogo gutxirekin

- **Erref:** DOE-001/015
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:20:37. **Bukatu:** 00:21:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Unaik dio garai batean ikasitako solfeoa baliatzen duela gaurko egunez ere taldekideekin entseatzen eta kantak sortzeko garaian.

11. Batxilerra Lekarozen

- **Erref:** DOE-001/019
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:23:14. **Bukatu:** 00:25:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Unaik arrunt pertsona ireki eta hiltuntzat du bere burua. Izaera horrek asko lagundu omen zion lagunak egiteko batxilerra ikastera Lekarozera joan zen garaian.</p>

12. Lagunei hika; anaiari zuka

- **Erref:** DOE-001/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Unai eta anaia hika aritzen dira haien lagunartean, baina elkarri ezin omen diote hika egin, barrenak ez die agintzen, eta zuka aritzen dira.

13. Gustuko tokian aldaparik ez

- **Erref:** DOE-001/022
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Lekarozen hasi eta lehendabiziko suspentsoak eraman zituen etxera Unaik.

Gero gustuko ikasketak egiten hasi zen, ordea, eta ordutik ez du batere arazorik izan.

14. Bateria erostea, gurasoen "inbertsio"

- **Erref:** DOE-001/024
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:31:06. **Bukatu:** 00:33:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Batxilerra hastearekin batera ekin zion Unaik bere lehendabiziko musika taldeko kideekin entseatzeari. Gurasoek beti errespetatu dute Unaien musikarekiko zaletasuna.

15. Lehendabiziko bateria, egungoaren oinarri

- **Erref:** DOE-001/025
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:33:09. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Zortzi urterekin erosi zioten bateria gurasoek, eta oinarri haren gainean osatu du egun erabiltzen duena.

16. Bateriaarentzat tokirik ez

- **Erref:** DOE-001/026
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:35:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Behin baino gehiagotan gertatu izan zaio Unairi, kontzertu bat ematera joan eta bateriaarentzat behar baino leku gutxiago izatea.

17. Kontzertua eskaintzeko baldintza minimoak

- **Erref:** DOE-001/027
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:35:52. **Bukatu:** 00:37:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

"Estu & Larri" eta "Oharkabe" taldeekin kontzertua eskaini behar dutenetan eskatzen dituzten baldintza minimoak.

18. "Oharkabe" berbena taldea

- **Erref:** DOE-001/031
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:39:15. **Bukatu:** 00:41:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bi musika taldetan aritzen da Unai, bateria jotzen: "Oharkabe"n eta "Estu & Larri"n. Oharkabe berbena taldea nola sortu zuten kontatzen du.

19. 9 hilabeteen 50 kontzertu

- **Erref:** DOE-001/032
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:41:36. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

2013ko udan hasi ziren entsegutan "Oharkabe"-rekin. 2014ko martxoan hasi zitzaizkien deika herrietatik, kontzertu eske. 9 hilabeteen 50 kontzertu inguru eskainiak zituzten elkarriketa egin genuen egunean (2014-12-30).

20. Berbena taldearekin ibiltzea, esperientzia ona

- **Erref:** DOE-001/033
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:43:45. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Batzuetan nekagarria izan arren, oso positibotzat dauka Unai Oharkabe taldearekin herriz herri kontzertuak ematen izandako esperientzia.

21. Kopilotoak hiltuna behar du

- **Erref:** DOE-001/035
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Taldekide bakoitza bere laneki nekatzen da. Baina kontzertuetatik bueltan Unaik gidatu ohi du, furgoneta berea delako eta, gainera, gustuko duelako. Baina kopiloto hiltuna nahi izaten du, eta beti ez da posible izaten.

22. Letra guztiak euskaraz

- **Erref:** DOE-001/037
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:46:18. **Bukatu:** 00:48:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Oharkabe" taldearekin jotzen dituzten kanta guztien letrak euskaraz dira, eta Unaik erdalduntzen hasitzat zeuzkan eremuetan ere oso arrera ona izan dutela dio.

23. Harremanetarako mutil irekia

- **Erref:** DOE-001/040
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:54:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Herriren batera kontzertua eskaintzeko iritsi eta bertakoekin zein antolatzaileekin harremanetzeko batere arazorik ez du izaten Unaik.

24. Estu & Larri

- **Erref:** DOE-001/042
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:57:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Beste proiektu batzuetan taldekide izandako beste musikari batzuekin elkartu zen Unai, eta "Estu & Larri" taldea sortu zuten. Abeslaririk ez zuten, ordea, eta Unaik anaia komentzitu zuen.

25. Begiradarekin komunikatzen gara

- **Erref:** DOE-001/044
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:58:18. **Bukatu:** 01:00:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Asko estimatzen du Unaik zuzenekoetan taldekideek berarekin konplizitatea bila dezaten. Bestalde, begirada bat nahikoa izaten dute musikariek oholtza gainean, elkarri adierazi nahi diotena ulertzeko.

26. Zuzeneko ona ez da kasualitate

- **Erref:** DOE-001/046
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:00:48. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Zuzeneko emanaldi bakoitzaren atzean lokaleko entsegu eta prestaketa lan handia izaten da.

27. Lokaleko entseguak

- **Erref:** DOE-001/048
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:02:27. **Bukatu:** 01:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Kantak sortzeko garaian ere behar beharrezkoak dira konfiantza eta errespetua.

28. "Estu & Larri" taldearen sorrera

- **Erref:** DOE-001/050
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:06:38. **Bukatu:** 01:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Amaiurren jo zuten lehen kontzertua, eta geroztik, Iruñean eta Donostian jo

izan dute, besteak beste. Hala ere, Unaik inoiz eskainitako kontzerturik onena, Doneztebeko plazakoa.

29. Lagunen babesa eskertzen du Unaik

- **Erref:** DOE-001/051
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:09:07. **Bukatu:** 01:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Lagunen babesa eta une jakinetan haiek taldearekiko azaltzen duten interesa asko eskertzen ditu Unaik.

30. "Ateak zabaldu eta zabalik utzi"

- **Erref:** DOE-001/053
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:11:54. **Bukatu:** 01:13:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Unairi musika estilo batzuk besteak baino gehiago gustatzen zaizkio, baina ez du batere jarrera itxirik.

31. Tabernetan "Reggaetoia" nagusitu da

- **Erref:** DOE-001/055
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:13:41. **Bukatu:** 01:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Tabernetan jartzen den musikari dagokionean aldaketa handia sumatu du Unaik, urte batzuetatik hona. Musikak parranda giroa bera ere aldatu duela dio, neurri batean.

32. Musika eta giro onaren bila

- **Erref:** DOE-001/059
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:19:38. **Bukatu:** 01:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Parrandan gustuko musika eta giro onaren bila joan zaleak dira Unai eta koadrlakoak.

33. Kaseteak etxean

- **Erref:** DOE-001/061
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:22:20. **Bukatu:** 01:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Unaik baditu aitaren kasetak, baina baita berea den baten bat ere. Gero musika jaisten hasi zen internetetik, baina segituan ohartu zen musika sortzearen kostuaz eta balioaz, eta gaur egun gehiago erosten saiatzen da.

34. Durangoko Azokara musika bila

- **Erref:** DOE-001/062
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:23:50. **Bukatu:** 01:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Durangoko Azokara musika bila joatea ohitura bihurtzea nahiko luke Unaik.

35. Doneztebetik mundura

- **Erref:** DOE-001/066
- **Iraupena:** 0:06:04. **Hasi:** 01:28:19. **Bukatu:** 01:34:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Doneztebe-Malerreka inguruko musika taldeen errepasoa egiten hasi eta zabaltzen, zabaltzen...

36. Denboran atzera

- **Erref:** DOE-001/067
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:34:23. **Bukatu:** 01:35:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Denboran atzera egiteko eskatu eta Unaik izendatzen ditu jotzeari utzita dauden zenbait talderen izenak.

37. "Estu & Larri", lagun talde bat

- **Erref:** DOE-001/069
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:36:09. **Bukatu:** 01:37:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Ez dute taldea hartzen derrigor egin beharreko betebeharrak baten gisan, kuadrilla baten modura baizik.</p>

38. Lehen gehiago egiten genuen euskaraz

- **Erref:** DOE-001/071
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:37:45. **Bukatu:** 01:39:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Unaik dio lehen kuadrillan gehiago egiten zutela euskaraz. Gaurko egunean erdaldunduta sumatzen ditu bai inguru hurbila eta baita Doneztebe bera ere.</p>

39. Inguruko herritan zer?

- **Erref:** DOE-001/073
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:39:42. **Bukatu:** 01:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Inguruko herritako hizkuntz joerez mintzatzen zaigu Unai.

40. Irain asko

- **Erref:** DOE-001/078
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:44:12. **Bukatu:** 01:46:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Irain "fuertea" behar bada, errazago irteten zaie gazteleraz, euskaraz baino. Iraina lagunartean doanean eta, iraintzeko baino, elkarriketa umorez eramateko baliatzen dutenetan ere, gazteleraz irten ohi zaie, askotan.

41. "Illupa"

- **Erref:** DOE-001/079
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:46:06. **Bukatu:** 01:47:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Zaharragoei entzundako irainengatik galdetu eta horixe bota du Unai: illupa.

42. Esaera zaharrak

- **Erref:** DOE-001/081
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:47:53. **Bukatu:** 01:49:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Esamolde gutxi etorri zaizkio gogora Unairi, baina esaera zaharrak badakizki gazteleraz, eta baita euskaraz ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com